

# BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 3841

*106/2018 DEKRETUA, uztailaren 17koa, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.*

Urriaren 23ko 224/2012 Dekretuaren bidez, Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lanpostu-zerrendak onartu ziren. Dekretu hori hainbat aldiz aldatu da.

Lanpostuen zerrendak Justizia Administrazioaren barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldatzeko lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldiari aldiari, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 521., 522. eta 523. artikuluetan xedatutakoa betetzeko.

Ondorioz, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, hala jasota baitago Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3. artikuluan eta Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 17an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea Vitoria-Gasteizko barruti judizialari dagozkion lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean daude jasota.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.**– Baliabideak.

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.**– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 17an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

2018ko uztailaren 26a, osteguna

## UZTAILAREN 17KO 106/2018 DEKRETUAREN ERANSKINA

**Aldaketa mota: Aldaketa.**  
**Saila: Lan eta Justizia Saila.**  
**Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioko Zuzendaritza.**  
**Destinoko Zentroa: Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra.**  
**Herria: Vitoria-Gasteiz.**

Aldaketa mota	Aldaketa	Lanpostua	680020	Dotazioa	10	Lanpostuaren izena	Zerbitzu Orokor Prozesal Erkideko Laguntza Judiziala	Mota	G	Herria	Vitoria-Gasteiz	Betetzeko era	L.O	Taldea	D	Kideagoa	Laguntzaile judiziala	Titulazioa akademikoa	DBH gradua edo baliokidea	Berariazko ezagutzak	Hizkuntza-eskaintza	Hizkuntza-bereritasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	2.241,96	Berariazko osagarria	6.763,74	Oharrak	
---------------	----------	-----------	--------	----------	----	--------------------	--	------	---	--------	-----------------	---------------	-----	--------	---	----------	-----------------------	-----------------------	---------------------------	----------------------	---------------------	--------------------------------	--------------	--------------------------------	----------	----------------------	----------	---------	--